

Gure ideiaren bidez zera konpondu, aldatu edo lortu nahiko genuke: hau da, funtsean, aholkularitza enpresa bat izango litzateke.

Honen bidez, ikasleen heziketa-etekina handituko litzatekeela pentsatzen dugu, berau baita ikasleen eskubide urriengatik gehien kaltetua gertatzen den aspektua. Horrek ikasleak frustratzen baititu, eta beraz, beraien errendimenduan eragiten du.

Hasteko, zentro bakoitzeko tabloiean gure balio proposamena azaltzen duen kartel bat jarriko dugu non gure enpresaren helbide elektronikoa bertan azalduko den. Bertara, ikasleek haien izena-abizenekin eta mailarekin batera euren arazoak helaraziko lizkigukete.

Arazo oro jasotakoan, informe bat egingo genuke eta jarraian zuzendaritzarekin bilera bat ezarriko genuke, arazoari konponbide bat bilatzeko.



Hortaz gain, hilabetero biltzar moduko bat egingo genuke ikastetxeetako ordezkariekin eguneratuak egoteko.

Bestalde, zerbitzua eskaintzean, inork bermatu ezin dezakeen gertutasuna erraztuko genieke, aurrez aurreko harremanak mantenduko baikenituzke.